



Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozioekonomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko programa arautzen duten oinarri arautzaile orokorrak.

VIII ERANSKINA – EZAGUTZA KALITATEZKO ENPLEGUA

Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sortu, transferitu eta partekatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Aldeko testuinguru bat sustatzea, ekosistema sozioekonomiko osoaren lankidetzarekin, alde batetik, kalitatezko enplegu jasagarri bat sortzeko, betiere Gipuzkoan bultzatzen ari den enpresa eta lurralde garapeneko ereduarekin lotua, eta bestetik, enplegua eta lantokiak eraldatzeko gaitasunak garatzeko, etorkizuneko aldaketei aurrea hartzea eta sortuko diren aukera guztiak aprobetxatzea ahalbidetuko dutenak, jasagarritasun hirukoitza txertatuz (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa).

ENTITATE ONURADUNAK

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean sartuak dauden eta Gipuzkoan kokatuta dauden entitateak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresa-elkarteak eta klusterrak.
- EAEn kokatuta dauden eta Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituzten enpresa elkarteak eta/edo klusterrak.
- Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkariak handiena duten erakunde sindikalak.
- Dirulaguntzaren xede diren gaietan espezializatutako zerbitzu aurreratuen enpresak, Gipuzkoan kokatuak.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatueta zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.6. oinarrian aipatzen den aitorten erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan beratu osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezke jarduketak hauek:

- Funtsezko ikerketa proiektuak.
- Ikerketa industrialeko proiektuak.
- Garapen esperimentaleko proiektuak.



- Interes bereziko ekintza osagarriak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) erakunde bat, gutxienez, barne hartzen duten ekintzak, prospektiba eta zaintza azterlanak egiteko; eta lankidetzak, transferentzia, dinamizazioa, sustapena, hedapena eta zabalkundea bultzatzeko ekintzak, funtsezko eta industria arloko ikerketa proiektuekin lotutako jardueretan.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak lurraldearen eraldaketa jasangarri eta erantzunkidera bideratuko dira, kalitatezko enplegua garatzea ahalbidetuko duen testuinguru eta baldintza jakin batzuk sortzeko, betiere honako gai hauetara bideratuta:

- Enpleguaren kalitatea
- Lantokien eraldaketa
- Langileen parte hartzea enpresetan
- Bizitza osoko ikaskuntza
- Enplegarritasuna eta okupazio maila
- Etorbizuneko enplegua eta enpleguaren etorkizuna
- Aldaketa digitalak, ekologikoak eta demografikoak
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasuna
- Enplegu jasangarria
- Enplegu gune berriak
- Enpleguaren hiru dimentsioak integratzea (pertsonala, antolakuntzako eta soziala)

651/2014 Erregelamenduko (EB) 6. artikulua araberak, oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak emango dira soilik laguntza jasoko duen enpresaren jardueran pizgarri efektua sortzen badute:

- ETE baten kasuan, laguntzak pizgarri efektua duela ulertuko da enpresak proiektuan edo jardueran lanean hasi aurretik aurkeztu badu laguntza eskaera.
- Enpresa handiei dagokienez, laguntza batek pizgarri efektua duela ulertuko da baldin eta aurreko atalean ezarritako baldintza betetzeaz gain, laguntzak emaitza hauetakoren bat edo gehiago izango dituela egiaztatzen badu:
 - Laguntzari esker, proiektuaren edo jardueraren irismena nabarmen handitzea, edo
 - Laguntzari esker, onuradunak proiektuan edo jardueran inbertituko duen zenbateko osoa nabarmen handitzea, edo
 - Proiektuaren edo jardueraren exekuzio erritmoa nabarmen handitzea.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

5.1 Diruz lagungarriak izango dira:

a) Langileen kostu zuzenak, proiektuari lotutako lanetan ari diren neurrian (ikertzaileak, teknikariak, eta ikerketa lanetan aritzen diren beste langile batzuk, entitate eskatzailearen plantillakoak).

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

b) Kontratuzko ikerketak, eskuratutako ezagutzek, eta, kanpoko iturrien baimen bidez, erabateko eskumen baldintzekin, lortutako patenteek eragindako kostuak, eta baita ere proiektura bideratutako aholkularitza eta zerbitzu baliokideen kostuak.



Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

c) Kanpoko aholkularitzaren eta zerbitzu baliokideen kostua (entitate parte hartzaileetako langileak ez diren laguntzaileak, eta proiektuaren oso espezializatuak diren zatien azpikontratazioa barne), betiere kanpoko iturrirei erosita, zerbitzu horiek ikerketarako soilik eta modu jarraian erabiltzeko baldin badira, ezagutza teknikoak eta ikerketa ezagutzak barne.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

d) Lan horretarako akreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko eragileen azpikontratazioaren kostuak.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

e) Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiari dagozkienak bakarrik.

f) Kostu orokorrak edo zeharkakoak: zeharkako kostu gisa konputatuko da diruz lagundu daitezkeen langileen zuzeneko kostuen % 15a.

g) Lanabesen eta materialen kostuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian; lanabesen eta materialen bizi-tza baliagarri osoa ez bada proiekturako erabiltzen, diruz lagungarritzat hartuko dira proiektuaren iraupenari dagozkion amortizazio kostuak, orokorrean onartutako kontabilitateko printzipioen arabera kalkulaturakoak.

5.2. Aurreko atalean aipatutako diruz lagungarriak diren gastuak 651/2014 Erregelamendu Orokorrak, kategorien arabera salbuespenari buruzkoak, 2 eta 25 artikuluetan ezartzen duenaren arabera interpretatuko dira.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

6.1. Laguntzen ehunekoak honako hauek izango dira:

- a) Funtsezko ikerketa proiektuen kasuan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100.
- b) Ikerketa industrialaren proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.
- c) Garapen esperimentaleko proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25.
- d) Interes bereziko ekintza osagarrietan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 funtsezko ikerketa proiektuei lotuta badaude, eta % 50 ikerketa industrialeko proiektuei lotuta badaude.

6.2. Aurreko b), c) eta d) ataletan ezarritako ehunekoak % 80 gehitu ahal izango dira honelako kasuetan:

Eskatzaileak enpresa ertainak direnean % 10, eta enpresa txikiak direnean % 20.
% 15 baldintza hauetakoren bat betetzen bada:



- Proiektuak benetako lankidetzara behar izatea.

Enpresen artean, gutxienez bat enpresa txikia edo ertaina izatea, edo bi estatu kideetan gutxienez garatzea, edo estatu kide batean eta EEEko erabakian alderdi kontratatzaile batean; aldi berean, enpresa batek ez du, bere kabuz, diruz laguntzekoak diren kostuen % 70 baino gehiago ordainduko.

Enpresa baten eta ikertzeko eta ezagutza hedatzeko zeregina duen organismo baten edo batzuen artean, horiek beren gain hartuko dute, gutxienez, diruz laguntzekoak diren kostuen % 10, eta beraien ikerketen emaitzak argitaratzeko eskubidea izango dute.

- Proiektuaren emaitzak zabal hedatzea, hitzaldi, argitalpen, sarbide askeko datu-base, eta doako edo iturri irekiko programa informatikoen bitartez.

EMATEKO PROZEURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, helburu bera lortzeko emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, 651/2014 Erregelamendu Orokorrak, kategorien arabera salbuespenari buruzkoak, aurreikusitako gehieneko kopurura arte.

BETETZEKO EPEAK

- Eskerak aurkezteko epea: 2021ko urriaren 14ean, goizeko 12:00etan amaituko da.
- Jarduerak hasteko epea: dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.
- Proiektuen exekuzio data: 2022ko ekainaren 28a.
- Proiektuak justifikatzeko data: 2022ko uztailaren 28a.

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan enpleguaren kalitatea sustatzeko programaren 2021ko oinarri arautzaileak eta deialdia.

(2021ko irailaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 177 zk. 2021ko irailaren 15ean](#)).



ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/kalitatezko-enplegua/ezagutza-kalitatezko-enplegua>

- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENENKO ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus